

noaua



"IÑURRI EGUNA DENAK ELKARTZEKO MODUKO GUNE BAT DA"

Larunbatean ospatuko da II. Iñurri Eguna. Antolatzaileek egitarauaren xehetasunak eskaini dizkigute / 06-07. or.

ARGAZKIA: NOAUA




LANBIDE ESKOLA

**Zubieta
Lanbide Eskola
50. urtemuga
ospatzen hasi da** / 08



NOAUA

**Jende ugari batu zen
aurreko asteko
erasoa gaitzesteko
elkarretaratzean** / 14



NOAUA

**Etumeta AEK
euskaltegian
matrikulatzeko
garai egokiena da** / 16



NOAUA

**Usurbil KE eskubaloia
taldeak gogotsu ekin
dio denboraldi
berriari** / 20



Inmogest

Finka administratzailea
Aholkularitza zerbitzua
Inmobiliaria
Aseguruak



648 508 899
Eusko Gudari 35, Orio






G15 USURBIL

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ONENA AURREZ AURRE!


SALEROSKETA
& ALOKAIRUAK




688 739 733

g15usurbil.eus info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea, 15 Usurbil, Gipuzkoa







JARRAI IEZAGUZU
SARE SOZIALETAN



www.noaua.eus



@noauaastekaria



@noaua



Noaua Aldizkaria



@noauatb

Mobilizazio burrunbatsua, genozidioa gerarazteko

Usurbilek eta Euskal Herriko beste udalerrri batzuk bat egin zuten Gernika-Palestina Herri Ekimenak irailaren 5ean deitutako kazeroladarekin. Mobilizazio burrunbatsua egin zuten kontzertu arratsaldearen aurretik Mikel Laboa plazan. Herritarrak, kazerolekin eta Palestinako banderekin azaldu ziren elkarretaratzerara. "Genozidioa stop! Israelekin hautsi! Elkartasuna" lelopean hama-

bost minutuz izan ziren plazan, sirena eta kazerola hotsen artean.

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Usurbilen ere Palestinaren aldeko kazerolada egin zuten. Bonbardaketa bat iragartzen duen sirena hotsak entzun ziren Usurbilen. Gernika-Palestina Herri Ekimenak deitutako ekimena Mikel Laboa plazan burutu zen.



Irailaren 5ean, mobilizazio burrunbatsua egin zuten kontzertu arratsaldearen aurretik.

Garbigune mugikorra, Kalezarren

Atalluko Garbigunera joan ezin dutenei zerbitzu hau gerturatzea helburu duen Udalaren garbigune mugikorra Kalezarren izango da irailaren 11tik 17ra. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe.

Bestalde, bi astero moduan, igandean, irailaren 14an bilduko dute errefusa.

Tren zerbitzu bereziak Kontxako estropadara

Kontxako Banderaren bigarren eta azken jardunaldira joateko zerbitzu bereziak iragarri ditu Euskotrenek. Zehazkiago esanda, Usurbildik orduotan igaroko da trena hilaren 14an, Gipuzkoako hiribururantz: 8:24, 8:54, 9:24, 9:36, 9:54, 10:24, 10:36, 10:54, 11:24. Informazio gehiago, euskotren.eus atarian.

1958an jaiotakoak Artzabalen elkartuko dira

Urte luzez biltzeko izan duten ohitura berriko dute aurten ere. 1958an jaiotako herrikideak elkartzeko eguna jarri dute; irailaren 13an bilduko dira bazkaritarako Artzabalgo jate-txean.

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, izen-ematea haien kabuz bideratuko dute.

1950ean jaiotakoen bazkaria, urriaren 4an Atxegan

Urriaren 4an elkartuko dira bazkaritarako aurten 75 urte beteko dituzten herrikideak, Atxega jauregian. Hitzordura joan nahi duenak, izena emateko bi telefono hauetako batera dei dezake, irailaren 20a baino lehen:

648 83 83 70 (Pilar)

645 736 726 (Joxe Mari).



TOKIKOM

Argitaratzailea:

Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:

Ugaitz Agirre.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:

Aritz Lasarte, Asier Gonzalez,
Imanol Ubeka.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus

Banatzaleak:

Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.

Imprimategia:

Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Egiarekin konpromiso itzela

Abuztuaren 31n, 30ontziko flota bat Bartzelonan itsasoratu zen Gazara laguntza humanitarioa eraman eta horrela Israelen blokeoa hausteko asmoz. Modu horretan ireki nahi dute Gazan behar den korridore humanitarioa eta apurtu aldi berean Israelgo Estatu genozidak jarri duen setioa.

Anas Yamal, 28 urteko kazetaria zen eta Israelen hil zuen abuztuaren 10ean. Jada, Israelgo armadak eraildako kazetariak 250 bat badira. Jakin dudanez, hil osteko gutun bat idaztea nahitaezko zeregina bihurtu da Gazan kazetaritzan aritzen direnentzat. "Iragarri-tako heriotza baten kronika" moduko bat da.

Gaur, Yamalek hil aurretik idatzita utzi zuen mezuaren lerro batzuk konpartitu nahi nituzke zuekin. Ni ez naiz kazetari profesionala, baina afizionatu edo amateur gisa bederen talde horretan sartzen naiz eta eredutzat jotzen dut Amalek egiarekin hartu zuen konpromisoa. Honela hasten du bere gutuna: "Hau da nire borondatea eta nire azken mezua. Hitz hauek zuengana iristen badira, jakin ezazue Israelen lortu duela ni hiltzea eta nire ahotsa isilaraztea".

Anasek bakea, errukia eta Alaren bedeinkapenak opa diezkie bere gutuna leitzen dutenei. Eta honela jarraitzen du: "Alak badaki nire esfortzu eta indar guztiak gure herriarentzat babesa eta ahotsa izan direla". Fedepurtezinazuen Alarengan, Alak babestuko zuela bere bizia



Anas Yamal kazetaria.

espero zuen hainbeste maite zuen herrira itzuli ahal izateko, baina, "ez zen nonbait Alaren nahia eta bere dekretua betirako da".

Kontatzen duenez, sarritan probatu zuen sufrimendua eta galera, baina inoiz ez zuen zailtasun jarri egia den bezala transmititzeko hartuta zeukan konpromisoa. Bere irakurleei Palestina uzten zien, "mundu musulmanaren koroaren harribitxia, mundu honetako pertsona libre ororen bihotzeko taupada". Sham, alaba maittea, "bere begien argia" zaintzeko eskatzen die eskutitzean, baita bere seme Salah eta ama ere; "bere otoitzak nire gotorleku izan ziren", eta azkenik

**"ISRAELGO
ARMADAK ANAS
YAMAL KAZETARIA
HIL ZUEN
ABUZTUAREN
10EAN"**

Umm Salah emaztea ere: egun eta hilabete luzez separatua bizi izan dira gerragatik, baina denbora horretan emazteak leial eutsi dio elkarrenganako zuten loturari, "olibondo baten enborra bezain irmo".

"Hiltzen banaiz, nire printzipioei tinko eutsiz izango da. Alaren aurrean agertzen dut kontent hartzen dudala bere erabakia eta berarekin aurkitzea espero dudala. Zin dagizuet eutsi diodala egiari egin nion promesari eta ez diodala inoiz traizio egin". Otoitz batez amaitzen du: "O Alá, har nazazu zure martiriaren artean eta egizu nire odol honek askatasunaren bidea argitu diezaiela gure herriari eta nire familiari".

Norbaiti irakurri nion gizarte bat ezin dela aske izan gertatzen denaren errealitate objektiboa ezagutzen ez duen bitartean eta benetako kazetaritzaren lana hori da hain zuzen: bizi dugun egoeraren berri zintzo ematea, orduan bakarrik har ditzakegu eta erabaki zuzenak. Herritarrek hezte eta informatzeaz gain, kazetaritza zutabe garrantzitsua da boterea kontrolatu eta erakundeetan gardentasuna jartzeko.

Ebanjelioak duen esaldi ikonikoenetako batekin amaitu nahi nuke zutabetxo hau: "Zorioneak justiziaren gose eta egarri direnak, aseak izango dira eta" (Mt. 5-6). Injustizien aurrean pasiboak ez izateko gonbidapena da esaldi hau eta aldi berean, mundu hobe baten aldeko borrokan buru-belarri jarduteko deia.

Katekesi taldean izena emateko epea laster irekiko da

Usurbilgo Salvatore parrokiako katekesi taldeak jakinarazi duenez, urriaren 10ean hasiko dira ikasturte honetako saioak. "Aurten Katekesian izen-ematea modu telematikoan egingo da. 2. Mailatik aurrerako umeak dituzten familiek korreo elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia".

1. Mailan izena eman nahi dituzten familiek aldiz, "Parrokiaren korreo elektronikokoan salbatoreparrokia@gmail.com edo Parrokiako telefonoan 943 361 239 utz dezakete telefonoa eta izena. Gu jarriko gara harremanetan haiekin".

"Urriaren 10ean hasiko dira saioak"

Izena emateko egunak irailaren 22tik 28ra izango dira. Katekesi saioen hasiera, urriaren 10ean.

Kzguneko ikastaroak

Irailaren 1etik aurrera arratsalde, 16:00-20:00 artean irekiko dute. Hauek dituzue hurrengo asteotako ikastaroak:

Irailak 19-23, 16:00-18:00

- "LibreOffice Calc. Zure kalkulorriak sortu".

Irailak 24-30, 16:00-18:00

- "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net



ZER DIYO?



ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA

Eusko Jaurlaritzari hainbat eskaera

UCINekin dagoen osasun-arazo nagusia, galdatzeko labeetatik atmosferara egiten dituen isurketak dira. Isurketa horien jarraipena egiteko, aurreko urtean bezala, aurten ere, UCINek 2024ko bere jardunaren berri ematen duen Ingurumen Zaintza Plana aztertu dugu Anerrekako kideok. Baita, enpresa berean martxan dagoen atmosferara isuritako partikulen etengabeko neurriak hartzeko sistemak erregistratutako 2024ko datuak ere. Ingurumen Zaintza Plana eta etengabeko neurketaren datuak, Eusko Jaurlaritzaren esku daude, eta aztertu ahal izateko berari eskatzen dizkiogu urtero.

Dokumentu horien azterketatik atera ditugun ondorioak bidali dizkiogu Eusko Jaurlaritzari eta Usurbilgo udalari. Ondorioez gain, Eusko Jaurlaritzari, eskari oso zehatzak eginaz beste dokumentu bat ere bidali genion joan zen uztailen.

Horien artean, teilatutik inongo kontrolik gabe UCIN egunero egiten ari den isurketetan jarri dugu arreta. Osasun publikoa eta ingurumena babesteko, UCINi emandako baimenaren arabera, ezinbestekoa da galdatze-sistemak eragindako ke-isurketa guzti-guztiak iragazketa sistema batetik igarotzea atmosferara atera baino lehen. Horregatik, onartezina da egungo egoera, non galdatze-sistemak isuritako keen zati handi bat zuzenean igarotzen den atmosferara inongo iragazketarik gabe, labeen gaineko teilatuan irekita dauden zuloetatik, eta bereziki labe zaharrak isuritakoak, labe hori irekita



Ekainaren 13koa da argazkiko irudia. ANERREKA

INGURUMEN ELKARTEA.

dagoelako (aterik ez du). Hau da, enpresak sistematikoki ez du betetzen bere Ingurumen Baimen Bateratuan ezarritakoa. Filtratu gabe isuritako ke horietan hainbat kutsatzaile arriskutsu daude, osasunerako kaltegarriak, tartean dioxinak, furanoak, partikula solidoak eta COVT.

Arazo hau larria delako, aipatu labeak eragiten dituen kontrolik

"ATZEMANDAKO LEGEZKO URRAKETAK BERRIRO EZ GERTATZEKO, LEGEAK JASOTA DAUZKAN NEURRIAK HARTZEKO ERE ESKATU DIOGU EUSKO JAURLARITZARI, HAU DA, HALA BADAGOKIO, ZIGOR-ESPEDIENTEA IREKITZEA UCINI"

gabeko teilatuko ke-isurketak ekiditeko beharrezkoak diren aldaketa eta egokitzapen lanen inbertsioa UCINek egiten ez duen bitartean, kautelazko neurri gisa, labe hori prezintatzeko eskaria egin diogu Eusko Jaurlaritzari.

UCINek 2024ko jardunari buruz aurkeztutako Ingurumen Zaintzako Planeko txostenetan jasota dauden tximiniako (legez kontrolatuta dauden bakarrak) isurketen hainbat datu, ez datoz bat, etengabeko neurketen sisteman jaso zirenekin. Legeak baimentzen dion tximiniako ke-isurketen gehienezko muga, sarritan gainditu zuen UCINek iaz, hain zuzen, etengabeko neurketen sistemak dioenez, 17 egunetan (horietako batean, San Isidro egunean, onartutako muga baino 17 aldiz gehiago isuri zuten). Aldiz, UCINek aurkeztutako txostenean, 8 egun bakarrik jasotzen ditu. Alde horien zergatia argitzeko eskatu diogu Eusko Jaurlaritzari.

Atzemandako legezko urraketak berriro ez gertatzeko, legeak jasota dauzkan neurriak hartzeko ere eskatu diogu Eusko Jaurlaritzari, hau da, hala badagokio, zigor-espedientea irekitzea UCINi.

Bestalde, UCINeko galdatze-labeetan sortu eta zuzenean teilatutik egunero isurtzen jarraitzen duten kontrolik eta neurketarik gabeko ke kutsakorren segimendua egiteko, herritarren arteko sare bat antolatzen dihardugu Anerrekatik. Horretan laguntzeko prest dauden usurbildarren laguntza, beso zabalik onartuko dugu (anerrekaelkartea@gmail.com) .



ARTZABAL

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA

·KARTA

·RAZIOAK

·HANBURGESAK

·BOKATAK



943 36 91 39



Kima

MASAJE LEKUA



·KIROL MASAJEA

·MASAJE

TERAPEUTIKOA

·KOLONAREN

HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



Julene Illarramendi eta Amaia Ullate Iñurri elkarte kideak, Iñurri Eguneako kartela eskuetan dutela.

"Minbiziaren inguruko tabuak hausteko aukera bat da"

JULENE ILLARRAMENDI ELEXPURU, AMAIA ULLATE IZAGIRRE IÑURRI ELKARTEKO KIDEAK

Julene Illarramendik ama minbiziaren ondorioz galdu zuen eta Amaia Ullatek minbizia izan zuen. Iaz lehenengo aldiz antolatu zuten Iñurri eguna, eta izan zuen arrakasta ikusita aurten ere berriro antolatzea erabaki dute. Egun hori txatean hitz egindakoei aurpegia jartzeko balio dutela azaldu dute. Horrez gain, Iñurriren nondik norakoak zein diren zehaztu dute eta izaten ari diren gorakada nabarmendu dute.

Zertan laguntzen du Iñurrik?

Julene Illarramendi (J.I.): Iñurri sortu zen minbiziaren perspektiba aldatzeko, ikuspegi feministagoa eta eraldatzaileagoa sustatzeko, minbiziaren ikuspegia aldatzeko. Elkarte txiki bat da, beharren arabera jokatzeko duguna. Guretzat garrantzitsuena zaintza rol hori garatzea da eta tribu bat sortzea, minbizia duzunean osasun sistema publikoan baduzu zer eman eta zer jaso. Baina beste alor asko kolokan daude: nutrizioa, fisioa, sexualitatea... Eta Iñurri saiatzen da hori guztia lantzen.

Amaia Ullate (A.U.): Iñurrik ahal duen guztian laguntzen du, gure onurarako delako eta atzetik etorriko direnentzako ere bai. Diagnostikoa jasotzen duzunean ileordeak

eta turbanteak non erosteko zerrenda luze bat ematen digute. Baina ikusten dugu gabezia bat dagoela nutrizioan, fisioan, albo ondo-rioentzako kremetan... Iñu-

"GURE ARTEAN HITZ EGITERAKOAN MAILA BERTINEAN HITZ EGITEN DUGU ETA FAMILIA TXIKI BAT BEZALA DA"

AMAIA ULLATE IZAGIRRE

"IÑURRI EGUNA ERE OMENALDI TXIKI BAT IZANGO DA, IÑURRI BATZUK AURTEN EZ DAUDELAKO"

JULENE ILLARRAMENDI ELEXPURU

rri horretan guztian laguntzen digun sare bat da. Gure artean hitz egiterakoan maila berdinean hitz egiten dugu eta familia txiki bat bezala da.

Zenbat kide zarete? Edo zenbat pertsonari laguntzen diozue?

J.I.: Asko. Egia da txiki esaten dugula, baina ez gara txikiak. Ez dakit esaten. Oraintxe whatsapp talde bat dugu eta 300 pertsona inguru gaude. Iñurri minbizia duen pertsona horretan zentratzen saiatzen da, baina baita pertsona horren ingurua zaintzen ere.

A.U.: Iñurriak ditugu Galizian, Katalunian, Madrilan... Whatsapp taldeko kideak minbiziaren prozesuan egon garenok eta daudenak gaude. Gero, bazkideak baditugu minbiziaren prozesuan egon ez direnak baina gertuko kasuren bat izan dutenak. Ematen diren laguntzak ez dira soilik minbizia sufritzen dutenentzat, ingurukoei ere zaintza eta babes hori eskaintzen zaie.

Irailaren 13an bigarren Iñurri eguna ospatuko duzue. Zergatik hasi zineten Iñurri eguna antolatzen?

J.I.: Hasteko, gunek bat nahi genuelako denak elkartzeko. Asko gara eta jendeak esker-tzen digu gure lana eta dena uztartzeko modu bat da. Iñurri ere oso zaleak gara edozerekin festak egiten. Iñurri Eguna bada modu bat minbiziaren hitz egiteaz gain, festa egiteko. Gainera, gaixoaren iruditegia aldatu nahi dugu. Dirudi gaixo dagoena ohean dagoela, ezin duela etxetik atera, ezin duela beste ezer egin, ezin duela garagardo bat edan... Horri ere buelta bat emateko egiten dugu.

A.U.: Azken finean, gure leloa "Hil arte bizi" da, eta bizitza honetan denoi, batzuei gehiago beste batzuei gutxiago, festa gustatzen zaigu, eta denok elkartzea horrelako

—> egun batean ikaragarria da. Askotan, txatean jendea- rekin hitz egiten duzu, eta agian ez zara aurrez aurre ezagutzen, baina egun horrek aurpegiak jartzeko aukera ematen dizu, besarkada bat emateko... Eta dauden tabu horiek puskatzeko aukera bat da.

Aurreko urteko egitarauarekin alderatuz, aldaketa handiak daude aurtengoan?

J.I.: Berez, lehengo urtean bakarrik egin behar genuen Iñurri Eguna, baina jendea- ri asko gustatu zitzaionez eta espero ez genuen harrera izan genuenez, berdina egin dugu berdina egin gabe. Ikas- taroak desberdinak dira eta mahainguruan iñurriek haien esperientzia pertsonalaz hitz egingo dute, eta oso potentea izango denez, jendea gonbi- datzen dut bertaratzeraz. Iaz, bakarriketa bat egon zen eta aurten, bertso saio bat egitea erabaki dugu, oso ga- rrantzitsuak direlako guretzat bertso saioak, eta gainera, iñurriek ere gaiak jartzen dituztelako. Eta gero kont- zertuak, aisialdi moduan.

Iñurri Eguna ere omenaldi txiki bat izango da aurreko urtean zeuden iñurri batzuk aurten ez daudelako, eta ho- rregatik berezia izango da guretzat. Ez dugu penatik edo biktimismo horretatik jokatu nahi. Ikerketa sustatu behar da bizitza gehiagorako.

Uste duzue nahikoa inbertitzen dela ikerketan?

J.I.: Ez. Ez nago oso jarrita gaian, baina ez dakit zergatik ez den inbertitzen gehiago. Iñurri hor dabil diru bilketak egiten ikerketarako, baina hori guztia ez dugu guk egin behar.

A.U.: Ikerketarako dirua fal- ta da. Ikertzaileek dirua es- katu ahal izateko burokrasia asko egin behar dute, eta burokrasia hori egiten ari den bitartean, minbizia ez da gelditzen.



Julene Illarramendi, iazko Iñurri Egunean lanean. IZAN INURRI.

Nola egin behar du jendeak egi- tarauan proposatu dituzuen ekintzetan izena emateko?

A.U.: Gure web orrialdean hainbat eskaintza daude: ikastaroetan bakarrik izen emateko; bazkaria gehi ber- tso saioa, kontzertuak... Aipatu behar dugu bazkarian menu beganoa ere egongo dela.

Noiztik duzue lokala Usurbilen?

J.I.: Maiatzean egin genuen inaugurazioa. Hainbeste hazi denez, leku bat behar genuen forma emateko Iñurri elkar- teari.

A.U.: Taldea hor genuen, baina airean zegoen dena. Espazio fisiko bat edukitzeak beste itxura bat ematen dio gure elkarteari.

Nik beti esaten dut diag- nostikoa jasotzean, bakoit- zaren erreakzioa desberdina

izaten dela. Elkarte batera sartzea batzuei kosta egiten zaie. Orduan, ez badaukazu espazio fisiko bat, zeini dei- tuko diot? Diagnostikoa jaso duen batek lokal aurretik pasatzen den bakoitzean au- rretik begiratuko du, baina egun batean barrura sartze- ko pausua emango du.

Eta zein izango da lokalaren funtzioa?

J.I.: Ez da denda bat, biltegi bat baizik (kamiseta guztiak hemen gordetzen baititugu), bilerak egiteko espazio bat, terapiak egitekoa, hitzal- diak... Elkartea asko handi- tzen ari denez, eta denbo- rari ez dugunez, pixkanaka ari gara espazio honi forma ematen.

Aurrera begira adibidez, hilabetero hitzaldi bat anto- latu nahiko genuke.

A.U.: Orain adibidez, terapia pilo bat aurreikusita ditugu, eta akonpainamendua egi- teko gune bat ere bada. Pro- zesua bukatu duen jendeak ileordeak dohaintzan ematen ditu eta baten batek behar baditu, hemen daude. Infor- mazio gunea dela esan ge- nezake.

Eta zergatik ezarri duzue elkar- teko egoitza Usurbilen, eta ez beste nonbait?

J.I.: Ba egia esateko, Usur- bilgo udalak erraztasunak ematen dizkigulako.

Eta herritarrek nola hartu dute zuek hemen egotea. Zer nolako harrera egin zaizue?

A.U.: Oso ondo. Horrelako elkar- teak beti hiriburuetan egon ohi izan dira, eta elkar- te handiagoak dira. Hemen daukazu elkar- te bat laguntza emango dizuna, baina beste goxotasun batean. Herrita- rrentzat sostengu txiki bat dela uste dut, aukera bat.

J.I.: Herri txiki batek lasaita- sun hori ematen dizu. Hala ere, hemen dugu lokala es- tatikoan, baina Bizkaian lan asko egiten dugu, eta edozein tokitara mugitu gaitezke beharra baldin badu norbai- tek.

"ELKARTEA ASKO HANDITZEN ARI DENEZ, PIXKANAKA ARI GARA ESPAZIO HONI FORMA EMATEN"

JULENE ILLARRAMENDI ELEXPURU

"EMATEN DIREN LAGUNTZAK EZ DIRA SOILIK MINBIZIA SUFRITZEN DUTENENTZAT"

AMAIA ULLATE IZAGIRRE



Zubieta Lanbide Eskolaren 50. urtemugako ospakizun zikloari mahainguru batekin eman zioten hasiera.

"Gabezia guztiekin hasi ginen, baina bidea egin genuen"

50 urte bete ditu Zubieta Lanbide Eskolak. Ikasturte honetan ospatuko duten arren urtemuga, uda hasieran eman zioten hasiera zikloari ikastetxean bertan eginiko ekitaldi berezi batekin. Mende erdi honetan bidelagun izandakoak batu zituzten mahainguru batean.

Mahainguruko parte hartzaileek Lanbide Eskolak sorreratik gaur arte jorraturiko bide oparoa marraztu zuten. Hitza hartzen lehena, Antxon Zubiaurre izan zen, Lanbide Eskolak izandako lehen zuzendaria. Garai hartako testuinguruan kokatu gintuen. Bere esanetan, "kezka kulturala eta politikoa zegoen herrian". Herri honek Agerialdeko eskola publikoa edota "patronatua bilakatzen" den Udaregi zituen. Garai hartako OHO-ren azken urteetara heltzen zirenak "oso ikasturte jendetsuak" zirela oroitu zuen. Ziklook amaituta, "jende askok planteatzen zuen zer egin. Une hartan, ez zegoen goi mailako titulaziorik Usur-

bilen". Hezkuntza eskaintza zabaldu nahi zuten adin tarte gehiagotara. Horren aurrean, "mugitu ginen bost lagun", hainbat eskola ezagutera joan ziren. Udalarekin eta Parrokiarekin batera, besteak beste, erakundeotan ziren Felix Aizpurua eta Benantxio Otaegiren laguntzaz, Lanbide Heziketa Usurbilen kokatzea lortu zuten.

"AGINAGAN HASI GINEN, GABEZIA GUZTIEKIN, TELEFONORIK GABE. BAINA BIDEA EGIN GENUEN"

"Udalak lurzoru asko eta laguntza handia eman zigun". Aginagako parrokiak zituen lokalak eskaini zizkien bertan kokatzeko. "Han hasi ginen, gabezia guztiekin, telefonorik ere ez genuen. Baina bidea egin genuen".

Bigarren ikasturtean, ikasle kopurua gehitu zen, irakasle berriak sartu ziren. Lehen urte

"HANDIK GUTXIRA, KAMIOI PILOA HELDU ZEN MADRILDIK; TARTEAN BAT, 40 ARMAIRUREKIN"

haien ostean, Zubiaurreren lekukoa hartu zuen Mari Carmen Marinek zuzendaritza eraberrituan eta Antxonen esanetan, "nierretiratu nintzen Udaregira. Udalaren laguntza erabakiorrarekin eskola berriaren eraikuntzan murgildu ginen Zubietan". Izan ere, Marinek oroitu zuenez, "Aginagan erabiltzen ziren lokalak oso txikiak eta desagokiak ziren". Felix Aizpuruarekin eta Antxon Zubiaurrerekin batera, "ez dizuet esango zenbat bidaia egin genituen Madriler".

Kamioikada material

Gogoan du joan-etorri haietako bat. Oinarrizko eta beharrezko materiala eskatzera joan ziren. "Hezkuntzako idazkariordeak hartu gintuen. Itzuli gintezkeela esan zigun, ez zutela ezer. Lehiaketa publiko bidezko esleipena arte itxaron beharko genuela". Halere, bilera amaieran esan zien Alcalá Mecon ministeritzako lokalak zituztela eta haietan "zerbait egon zitekeela". Zerbait baino askoz gehiago aurkitu zuten, hogeitabat pabilioi erraldoi materialez beteak. Haietako batean sartzea lortu zuten. "Mota guztietako materiala" aurkitu zuten. Bisita haren ondotik, eskatutakoaren zatitxo bat baino ez zutela jasoko zutelakoan, eskaera zerrenda ahalik eta luzeena osatu zuten. "Handik gutxira, kamioi piloa heldu zen Madrildik, tartean bat, 40 armairurekin. Denon artean atera genituen. Bitxiena izan zen, eskatu gabe josteko hogeitak makina heldu zirela".

Ikastetxearen bueltako komunitatea etengabe hazten oroitzen ditu urte haiek Marinek, erabat kohesionatua zen komunitatea bezalaxe. "Familia batean sentitzen nintzen", nabarmendu zuen, urteotan lanean jardundakoei eskerrak ematearekin batera. "Argi dago, lanarekin eta sinismenarekin edozer gauza lor dezakegula".

"Gure eskola zen"

Aginagan mekanika eta administrazio ikasketak eskaintzen hasitako Lanbide Heziketak lehen ikasturteko 80 ikasleetako bat izan zen Arantxa Vitoria herrikidea. Aginagako ikastetxearen irekieraren berri izan zutenean, "mauka ederra izan zen. Itsu-itsu denok hara" joan zirela gogoratu zuen. Izan ere, 14 urterekin asko lanean hasi edota batzuk Donostia aldera jotzen zutela ikastera oroitu zuen. Hala, Udarragin eraikitako lagunartean jarraitzeko aukera izan zuten beste bi urtez. Gerora, gainera, Lanbide Eskolako langile bihurtu ziren. Donostian ikasten segi zuen artean, "mekanografiako klaseak emateko" bi langile behar zituzten eta irakaskuntzan murgildu ziren bera eta Pili Zubiria. Bitartean, "eskola handitzen zihoan eta behar gehiago zeuden, bulegoan baita ere" eta eremu horretan ere laguntzen hasi ziren, auzolana ardatz izan zuten urte haietan. "Matrikulazio garaian izugarritzko lana izaten zen. Bulegoan lan egiten genuen. Horma bota behar zela ikasgela handitzeko?", gogotsu aritzen ziren, "familia ginen" eta. Langileen konpromiso eta inplikazio maila goraipatu zituen. Gero, oposaketen bidez, plaza lortu zuen Zubietako eskolan. "Hainbeste ordu, erronka bizi ondoren, oso kuttuna zen guretzat, gure eskola zen".

Nazioartekotzea

Arantxa bezalaxe, oposaketa bidez heldu zen Iñaki Mugica Zubieta Lanbide Eskolara. Elektronika alorreko irakasle gisa hasi zen. "Arrasateko eskolan ikasita, ikasketak eta



Mahainguruko kideak. Zubietta Lanbide Eskolaren 50 urteotan ibilbideko hainbat bizipen partekatu zituzten.

lana" uztartzen zituztenez, "hemen planteatu nuen" gauza bera egitea. Inguruko enpresetara jo zuten "gure gazteek ere praktikak egiteko" aukerak izan zitzaizten. "Lortu genuen enpresa horien bitartez, klaseak goizez egitea eta arratsaldez praktikak egitea". Gerora, ikastetxeko zuzendari izango zena, nazioartekotze prozesuaren sustatzailea izan zen. Erakundeetara jo zuten dirulaguntza eske, "ikasleak Finlandiara joateko eta hortik hasi ziren", nazioarteko enpresetako praktikak. "Lehenbizikoak zortzi ikasle ziren. Gero, denek joan nahi zuten

Finlandiara". Etengabeko prestakuntzaren aldeko bidea ere ireki zuten. Enpresetara zihoazen ikasleen esperientzia baliatuta, "enpresetatik eskatzen hasi ziren, hemen irakasteko etengabeko prestakuntza".

Etengabe berritzen

Mugicaren ostean, 2000. hamarkada hasieran Patxi Vaquerizo izan zen Zubietta Lanbide Eskolako zuzendaria. Garai hartan, eskola "asentatua" zegoela gogorarazi zuen. Lantaldearen batasuna nabarmendu zuen. Etengabeko berrikuntzaren alde egindako garaia bizi izan zuen eta ho-

rretarako, erakundeetara laguntza bila nola jotzen zuten ekarri zuen gogora. "Erakundeetatik iristen hasi ziren ideiak energia alternatiboekin hasiteko. Orduko gizarteak kezka askoz handiagoa zuen ingurumenarekiko". Hortik sortu zen alor honi lotutako eraikin berriaren egitasmoa. Horrez gain, ekintzailatza sustatzeko bidea jorratzen hasi ziren, "enpresa bat sortzeko ideia izan zuten ikasleak laguntzeko". Nazioartekotzea ere indartu zen urte horietan. "Ikasleak joaten hasi ziren praktikak egitera Finlandiara. Energia berri-tagarri buruzko klaseak ematen hasi ginen nazioarteko ikasleei". Etengabeko prestakuntzaren harira ere, Zubigune fundazioa sortu zuten. Irakasleen formazioa sustatzen hasi ziren. "Azken urteotan fokua ikaslearen jarri da", oroitu zuen, 50 urteon ibilbidearen errepasoa borobilduz.

**"HAINBESTE ORDU
ETA ERRONKA BIZI
ONDOREN, OSO
KUTTUNA ZEN
GURETZAT. GURE
ESKOLA ZEN"**

**"ENPRESETATIK
ESKATZEN HASI
ZIREN, HEMEN
IRAKASTEKO
ETENGABEKO
PRESTAKUNTZA"**

 943 361 182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!**
www.noaua.eus



Ikastetxearen irudi berrituaren ondoan, Usurbilgo alkateak 50. urtemugako ekitaldian hitza hartu zuen unea.

"Lortu duzue eskola aitzindaria eta erreferentea izatea"

Zubieta Lanbide Eskolak betetako 50 urteak ospatzera doaz hilabeteotan. Hasiera ekitaldia, orde, udan egin zuten. Bertan, besteak beste, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak eta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburu Begoña Pedrosak parte hartu zuten.

Izandako ibilbide oparoagatik zoriondu zuen ikastetxeko komunitate osoa Usurbilgo alkateak. Izan ere, "egun ezin da ulertu eskualdeko garapen sozial eta ekonomikoa Zubietako Lanbide Eskolarik gabe. Eskualde honetako enpresa txiki eta ertainek aliatu ezin hobe dute". Aliantza sare horretan Udalak segiko duela ziurtatu zuen, 50 urteotan bezalaxe. "Egonkortasuna eta ziurgabetasuna nagusi diren

garaiotan, ziurtasuna eskaintzen duten eragileak ezinbestekoak ditugu".

Hala izan baita sorreratik. Ekaina amaierako osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartutako erakunde adierazpena ekarri zuen gogora Solaberrietak. "Adierazpenak berak gogora ekartzen zuen, 70eko hamarkadaren hasieran udalak sustatutako azterketa sozioekonomiko baten ondorioz, Felix Aizpurua eta Benantxio

Otaegi bezalako eta hemen zaudeten askoren inplikazioarekin, Lanbide Heziketako eskola bat sortzea proposatu zutela. Ekimen hura, bertako enpresek eta Gipuzkoako hezkuntza ordezkariak ere babestu zuten". Horregatik, babilioan jarri nahi izan zuen orduko "udalbatzaren konpromisoa, frankismoaren urte zailenetan ere gai izan zirelako, begirada aurrerakoia ardatz, halako hezkuntza egitasmo bat

osatu eta martxan jartzeko". Urte hauetako ahaleginari esker, "lortu duzue eskola aitzindaria eta eskola erreferentea izatea hainbat eremuetan; hala nola, enpresetako praktikan, etengabeko prestakuntzan, kalitatearen aldeko apustuan, edo nazioarteko lankidetzan, eta baita energia berriztagarrien eremuan ere".

"Eutsi zuen nortasunari"

Ildo beretik mintzatu zen hezkuntza sailburua ere. Sorrera "urte gogorak" ekarri zituen gogora. Duela mende erdi, "dena zegoen eraikitzeko". Halere, "Gipuzkoako enpresek eta industriak gazte prestatuak nahi zituzten eta horretarako lanean jarri ziren. Hor bazen lankidetzak, ausardia, bisioa", Pedrosaren esanetan, Lanbide Heziketaren muina izan dena. "Usurbilen beharrian horri erantzuten jakin zenuten" sorreratik gaur arte. Ordutik, gaur egungo eskaintza izatera heltzeko eginiko ahalegina eskertu zuen, izandako "ezagutzarako prestasuna eta berrikuntzarako sena". Aurrera begira, "ziur nago etorkizunean etorriko diren balibideak eta aukerak baliatuko dituzuela eragiten jarraitzeko zuen eskualdean, Gipuzkoan eta Euskadin. Eutsi zuen nortasunari, oso garrantzitsua baita eta jarraitu gure herriari oso lotuta". Bidelaguntza eskaini zion ikastetxeari.

"EUTSI ZUEN NORTASUNARI, OSO GARRANTZITSUA BAITA, ETA SEGI GURE HERRIARI OSO LOTUTA"

 943 361 182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL


Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08


Elikagaiak
Zubiarrenea 2, **943 36 55 81**

Zuen iragarkia hemen
 publizitatea@noaia.eus
 747-486-835



Isidro Zaldua, Zubietan Lanbide Eskolako egungo zuzendaria.

"Eskolak etorkizuneko beharrei aurre hartzen joan nahi du"

Betetako 50 urteen ospakizun ziklo betean da Zubietan Lanbide Eskola, uda hasieran eginiko hasiera ekitaldiaz geroztik. Hitzordu hartan, irudi berria aurkeztu eta etorkizuneko erronkak nabarmendu zituen ikastetxeko zuzendari Isidro Zalduak.

Irudi eta izendapen berriarekin ekin dio 50. urtemugari ikastetxeak. Zubietan Lanbide Eskola izena izango du hementik aurrera. Izan ere, egungo ikastetxeko zuzendari Isidro Zalduak gogorarazi zuenez, "Zubietan gaude". Zubietak urarekin duen lotura edota auzoez osatua izanik herri gisa duen mendeetako historia irudikatu nahi izan dute marka berriarekin, baita "beti etortzen dena jasotzeko prest" den ikastetxea dela. "Zubietan Lanbide Eskolak gizartearen etorkizuneko beharrei aurre hartzen joan nahi du eta horretarako, bidelagun izatea nahi genituzke" Zalduaren esanetan, enpresa edota erakundeak. "Zubietan

herriak eta eskualdeak duen ikastetxeaz harro izatea nahi dugu".

Nortasun propioari heldu nahi dion ikastetxea izaten segi nahi dute; batetik, ikastetxe adimentsua. Ildo horretan, erronkak ardatz dituen ikaskuntza kolaboratiboan oinarrituriko ETHAZI eredua ikastetxe guztietan txertatzeko beharra nabarmendu zuen.

**"ZUBIETA LANBIDE
ESKOLAK
ETORKIZUNEKO
BEHARREI AURRE
HARTZEN JOAN
NAHI DU"**

Etorkizunean ere teknologia berriei lotutako erronketarako prest egoteko baliabideak galdin zituen. Izan ere, "datu baseekin hasi behar dugu lanean, txertatu behar dugu adimen artifiziala" eta irakasle goa digitalizatu beharraz mintzatu zen. Enpresak lanean izatera deitu zituen, lehen ikasturtean ikasleek praktikalak egiteko.

**"ZUBIETA HERRIAK
ETA ESKUALDEAK
BERTAN DUEN
IKASTETXEAZ
HARRO IZATEA
NAHI DUGU"**

Ikastetxe jasangarria izaten segitzea ere defendatu zuen. "Energia murrizketa handiak egin ditugu" sustatu dituzten energia berriztagarrien proiektuen bidez; hainbat unetan, bertan sortutako energiarekin lanean egiten dute. Baina sistemarekiko ere jasangarri izatea erronkatzat jo zuen. Izan ere, matrikulazio eta eskaintza handitzea tarteko, "lekurik gabe geratzen ari gara". Eta jasangarritasun soziala ere lehentasunatzat ipini zuen. Lan-munduko jubilazioen eta jaiotze-tasa txikiagoa tarteko, "talentua erakartzeko lanean egin behar dugu".

Ikastetxe osasuntsua ere izaten segi nahi dute. Izan ere, "ikasle goaren osasun emozional eta autoemozioak landu behar ditugu" eta horretarako, "irakasle goa berezia behar dugu". Azkenik, zioenez, "ikasle goa atzerri bidaiaitzeko prestatu behar dugu" eta garrantzitsutzat jotzen du atzerri joaten direnen ikasketak homologatzea.

50 urteotako mugarrak

1975: eskola Aginagako parrokiaren instalazioetan hasi zen aldi baterako.

1978: gaur egungo kokapenera lekualdatu zen eskola.

1985: praktikak eskualdeko enpresetan egiteko esperientzia hasi zen.

1998: ISO 9000 ziurtagiria lortu zuen eskolak.

1998-99: naziartekotzearen hasiera.

2003: energia berriztagarrietako E eraikinaren inaugurazioa eta berrikuntza proiektuaren hasiera.

2011: Zubigune Fundazioaren sorrera.

2015: Enegur eraikinaren sorrera.

2018: Industria 4.0 eraikinaren sorrera.

2023: Energia Berriztagarrien esparruan, Lanbide Heziketako Bikaintasun Zentroen Estatuko Sarean sarrera.

2025: Irudi eta izendapen berria: Zubietan Lanbide Eskola.



Sagardo Klubaren saio berri bat antolatu du Alkartasunak. Argazkia iazko azaroan eginiko saio batekoa da. ALKARTASUNA KOOPERATIBA

Ikastaro ugari egiteko aukera ikasturte hasieran

Udako oporraldiaren ondoren, eguneroko martxari ekiteko garaia da. Itzulera gozatzeko xedez, hainbat ikastaro antolatu dituzte: desfibriladoreen erabilerari buruzkoa, Esperientzia Eskola, ikastaroak Santuenean, manga tailerra gaztetxoentzat... Hemen dituzue horietako batzuk.

Desfibriladoreen erabilera

Oiardo kiroldegiak gailuok erabiltzen jakiteko doako beste bi saio antolatu ditu irailaren 16an eta 17an, 17:00-20:00 artean, kiroldegian bertan. Egun bakarreko formakuntza saioak izango dira. Udalak usurbil.eus atarian zintzilikatutako galdetegi bat beteta eman ahal da izena. Gogoan izan, Udalak zortzi desfibriladore jarriak ditu tokiotan: kiroldegian, Harane futbol zelaian, Sutegiko arkupean, Santueneko frontoian, Zubietako frontoian, Egurtzegin (Pelaioeneara mugituko da laster), Aginagako eskola txikiaren kanpoaldean eta udaltzainen autoan. Horiez gain, "Txokoalden bederatzigarrena jartzea aurreikusia dago. Herrian gehiago ere badira, batik bat, enpresa pribatuek jarriak".

Jartzea bezain garrantzitsua da erabiltzen jakitea, Udaletik gogorazai dutenez. "Uztailean, herritarrei eta udal-langileei zuzendutako halako bost saio egin ziren, eta 64 lagunek parte hartu zuten, guztira. Orain, irailean, herritarrei zuzendutako bi saio irekiez gain, udal-langileentzako beste bat ere antolatu dute".

Esperientzia Eskola eta oroimen tailerra

Irailaren 26ra arte eman ahal da izena udal gizarte zerbitzuen eskaintza honetan, 943 377 110 telefono zenbakian edo astelehenetik ostiralera gizarte zerbitzuen egoitzan bertan, 9:00-14:00 artean, asteazkenetan izan ezik. "Zahartze aktiboa sustatzeko helburua dute bi ikastarook, eta urritik ekainera bitartean izaten dira,

doan", berri eman du Usurbilgo Udalak.

- Oroimen tailerra: "Memoria landu nahi duten adineko pertsonen zuzenduta dago; Lahar elkargoak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatua".
- Esperientzia Eskola: "55 urtetik gorako pertsonentzat pentsatuta daude. Lan mundutik erretiroa hartu eta ikasteko grina duen orok eman dezake izena. Astearteetan izaten da, 16:00etatik 18:00etara bitartean. Matia Institutuak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatua".

Orbeldi dantza taldea

Ikasturte berrirako ikastaroetan izena emateko irailaren 11ra arteko aukera izango da, esteka honen bidez: <https://forms.gle/1vAbsHSm9fmGkfPD6>

Bestela, hilaren 11n, 18:00-19:00 artean Oiardo kirolde-

giko dantza gelan presentzialki ere eman ahal da izena. Bide batez, "aurreko urteko arropak jasotzeko eta zalantzak argitzeko irailaren 11n aurrez aipatutako orduetan kiroldegiko dantza gelan izango gara".

Informazio gehiago, orbeldi. udt@gmail.com helbidean eskuratu ahal da duzue.

Manga tailerra

Irailaren 26an, manga marrazketari lotutako hastapen tailerra antolatu du Sutegi udal liburutegiak, liburutegian bertan, arratsaldeko 17:30etan. Sara Basurtok (@bluilea) eskainiko du. LH4tik gorako gaztetxoei zuzenduriko saioan 16 lagunentzako tokia egongo da. Izena liburutegian bertan eman beharko da.

Sagardo Kluba: Iparraldeko sagardoaren dastaketa gidatua

Irailaren 25erako antolatu du saio hau Alkartasuna Usurbilgo baserriarren kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak 18:00etan Aginagako Eliz Zaharrean.

Izena aurrez eman ahal da doan, Alkartasunako telefonon (943361114) edo alkartasuna@usurbil.com helbidean.

Santuenea elkartearen ikastaroak

- Tai-chi: urritik aurrera, astelehenetan, 17:00-18:00 artean. 675006445 (Maribi).
- Aeroyoga: urritik aurrera. 615715991 (Leire).
- Joskintza: ostiraletan, 17:00-19:00 artean. 695774951 (Mari Carmen).
- Sendabelar baratzea: urriak, 4, 10:00-13:00, auzoko frontoi ondoko lokalean, Garbiñe Larrearen eskutik. Izen-ematea: 621 095 644 / santueneake@gmail.com
- Sendabelar koadernoak, urriak 24 eta azaroak 7, 17:30-19:30 artean, Santueneko frontoi ondoko lokalean, Leire Lazkanoren eskutik.

Izen-ematea: 621 095 644 / santueneake@gmail.com



Sardin-jana ostiralean egingo da aurtengoan, irailak 19, arratsaldeko 19:30ean hasita.

Santueneko jaiak irailaren 19an hasiko dira

Kalezar, Usurbil, Zubieta, Urdaiaga eta Atxegaldereen ostean, Santuenearen txanda orain. Irailaren 19tik 21era auzoa festa giro betean murgilduko da. Bertako jai batzordeak osaturiko ekintzen egitaraua ezagutarazi du:

Irailak 19, ostirala

- 17:00 Txupinazoa.
- Ondoren, globo gerra.
- 18:00 Burrunbazale Txaranga.
- 18:30 Buruhandiak.
- 19:30 Sardin-jana.
- 22:00 Txalainak.
- Ondoren, DJ HODIrekin Re-member Festa.

Irailak 20, larunbata

- 10:00 Puzgarriak.
- 13:00 Buruhandiak.
- 14:00 Haurren bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).
- 15:30-16:00 Muserako izen-ematea.

- 16:00 Mus txapelketa.
- 16:00 Apar festa.
- 17:30 Txokolatada.
- 18:00 Buruhandi eta erraldoiak, LAUBURU konpartsa-
ren eskutik.
- 20:00 Holi Festa, DJ GORKA MENDIrekin.
- 00:30 Dj gaua: Mr Luken 2008, Kiliki eta Chuchamba Fönk La Flaca.

Irailak 21, igandea

- 09:00 Esnadeia JON&JON.
- 11:00 Zirko tailerra.
- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketako txosnan.
- 12:00 Zanpantzarrak.

- 14:00 Auzo bazkaria.
 - Ondoren, bingoa.
 - 18:00 Buruhandiak.
 - 18:00 Izer eta Alabier.
 - 19:00 Piper dastaketa.
 - 21:00 Festen amaierako traka.
- Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

**"DJ GORKA
MENDIK GIROTUKO
DU IRAILAREN
20KO ILUNTZEAN
EGINGO DEN HOLI
FESTA"**

Mobilizazio bikoitza igandean Donostian

Donostia estropaden hiriburua izango da bigarren igandez, irailaren 14an, Kontxako Banderaren bigarren eta azken jardunaldiarekin. Horrez gain, ordea, mobilizazio goiza ere izango da. Alde batetik, Zubietako erraustegia geratzeko giza katea deitu du urtero moduan Erraustetaren Aurkako Mugimenduk, "talde ekologista, sindikatu eta alderdi politikoekin batera".

Alderdi Ederretik

Goizeko 11:00etan abiatuko da mobilizazioa Alderdi Ederretik Kontxako hondartzara, "erraustegia gelditu!" aldarripean. Erraustetaren aurkako aldarria estropaden lehen lerroa eramango dute aurtengoan ere. Deitzaileak asteazkenean ziren mobilizazioari buruzko xehetasunak eskaintzekoak.

Ernaiten mobilizazioa

Horrez gain, martxa nazionala deitu du Ernaik Gipuzkoako hiriburuan bertan. Hilaren 14an abiatuko da 13:30etan Bulebarretik, "Ekin eta bultza, askatasunera" aldarripean. Usurbilgo Ernaik ere deialdiarekin bat egin eta mobilizazioan parte hartzeko deia egin du.

Trenez batera joateko hitzordua finkatu asmo dute sare sozialen bidez eta Usurbilgo gazte argazkia ere atara asmo dute Donostiako udaletxe atarian, mobilizazioa hasi aurretik.



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com

· EGUNEKO MENUA
· KARTA
· RAZIOAK
· HANBURGESAK
· BOKATAK

943 36 91 39



txirriStra
TABERNA

· PLATER KONBINATUAK
· BOKATAK · PINTXOAK

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Azken eraso larriaren gaitzespena

Aurreko larunbatean, herritar batek eraso larri bat jasan zuen Aranerrekan. Erasotzailea espetxera eraman dute.

Eraso larria izan zen irailaren 6an Aranerrekan. Ertzaintzak jakinarazi duenez, iluntzeko 21:00ak aldera, "gazte bat kalean oinez zihoan emakume bati dirua eskatzera hurbildu zen". Emakumeak ezezkoa eman zionean, gizona atzetik hurbildu zitzaion eta soka batekin lepoa inguratu eta itotzen saiatu zen, eta biak lurrera erori ziren. Gazteak emakumearen gerriko poltsa hartu eta korrika alde egin zuen. Biktima inguruko baserri batera joan zen laguntza eske, eta Ertzaintzari gertatutakoaren berri eman zion. Eraso larri horren ostean, "bertaratu ziren polizia-baliabideek biktima artatu eta lapurretari buruzko informazioa bildu zuten".

Biharamunean, igandean, Ertzaintzak berri eman duenez, "13:00ak aldera, ertzainak Usurbilgo borda abandonatu batera joan ziren, eta bertan bi gizon aurkitu zituzten. Miatu zutenean, biktimaren izenean zegoen kreditu-txartel bat eta indarkeria erabiliz lapurreta egin zuen pertsonaren jantzien ezaugarri bereko arropak aurkitu zituzten. Hasiera batean, ertzainek bi gizonak, 24 eta 27 urtekoak, atxilotu zituzten egindako delitu larriaren ikerketaren esparruan".

Ertzain-etxera eraman eta han "egiaztatu ahal izan zuten 24 urteko atxilotuak bakarrik parte hartu zuela gertakarian, eta bigarren atxilotua aske utzi zuten, beraz. Atxilotua agintari judizialaren eskuetan jarri zuten, eta honek espetxeratzeko agindua eman zuen".

Erasoa gertatu zen unetik Udala "harremanetan dago

erasoa jasan duen herritarrarekin", Udalak aste hasieran kaleratu zuen erakunde adierazpenaren arabera. Udalbatza osatzen duten EHBildu, EAJ eta PSE eragileek plazaraturiko testuaren arabera, "babesa adierazi eta laguntza eskaini dio, udal-baliabideak bere eskura jarritz. Herritarra esker oneko azaldu da jaso dituen animo eta elkartasunezko mezuekin".

Gaitzespena, babesa eta mobilizaziorako deia

Eraso larri horren aurrean, "Udalak erabat gaitzesten du gertatutakoa, eta halako eraso eta jokabide bortitzek Usurbilen ez dutela lekuri nabarmendu" dute udalbatza osatzen duten hiru alderdiek. Gaineratu dutenez, "ez dugu horrelako pertsonarik ez jarerrarik onartzen gure herrian, ezta, oro har, bizikidetzaren aurkako edozein jokabide ere".

Arduraz jokatzeko deia egin dute. "Gertakariak herritarren artean ezinegona sortu duela jakitun gara, baina momentu zail eta ezohiko hauetan arduraz eta erantzukizunez jokatzeko deia egin nahi dugu, alarma soziala eragin dezaketen mezuak saihestuz eta inolako kolektiborik jo-puntuari jarri gabe", nabarmendu dute.

Aurrerantzean ere "herri abegitsu, seguru eta kohesionatuak eraikitzen jarraituko dugu". Segidan duzue, Udalak aste hasieran kaleraturiko erakunde adierazpena:

Udalaren adierazpena

Larunbat gauean, Usurbilen, Aranerreka inguruan, herritar



Asteartean elkarretaratzea egin zen udaletxe aurrean.

batek jasadako eraso larri baten berri izan zuen udalak igande goizean. Ertzaintzak udalari jakinarazi dionez, gizon bat bortitz oldartu zitzaion emakume bati, lapurreta egiteko asmotan, eta jipoitu egin zuen. Igande goizean bertan bi lagun atxilotu zituzten, herrian bertan, eta bietakoa bat aske utzi zuten, igande arratsaldean, erasoarekin zerikusirik ez duelako; bestea, epailearen aurretik pasatu zen astelehen goizean, eta espetxeratzeko agindua ezarri diote hilketa saiakeragatik.

Gertakariaren aurrean, Usurbilgo udalbatza osatzen duten hiru alderdiek (EH Bildu, EAJ eta PSE-EE) honakoa adierazten dute:

- Udala, lehenengo unetik, harremanetan dago eraso jasan duen herritarrarekin, eta babesa adierazi eta laguntza eskaini dio, udal-baliabideak bere eskura jarritz. Herritarra esker oneko azaldu da jaso dituen animo eta elkartasunezko mezuekin.

- Udalak erabat gaitzesten du gertatutakoa, eta halako eraso eta jokabide bortitzek Usurbilen ez dutela lekuri nabarmendu nahi dugu: ez dugu horrelako pertsonarik ez jarerrarik onartzen gure herrian,

ezta, oro har, bizikidetzaren aurkako edozein jokabide ere.

- Gertakariak herritarren artean ezinegona sortu duela jakitun gara, baina momentu zail eta ezohiko hauetan arduraz eta erantzukizunez jokatzeko deia egin nahi dugu, alarma soziala eragin dezaketen mezuak saihestuz eta inolako kolektiborik jo-puntuari jarri gabe.

- Segurtasuna herri-eskubidea da: herritarrek beldurrik gabe, lasaitasunez eta inguruarekiko konfiantzaz bizitzeko eskubidea dute, eta Usurbilgo Udalak, orain arte bezala, ildo horretan lanean jarraituko du.

- Herri abegitsu, seguru eta kohesionatuak eraikitzen jarraituko dugu.

- Irailaren 9an, Usurbilgo herritarrei dei egiten diegu elkarretaratzerantz: 18:30ean, udaletxeko Joxe Mari Sagardia plazan, 15 minutuko elkarretaratze isila egingo dugu herritarrari babesa adierazteko.

"HERRI ABEGITSU, SEGURU ETA KOHESIONATUAK ERAIKITZEN SEGIKO DUGU"

UDAL ADIERAZPENA



Izena emateko epea irailaren 15ean zabaldu eta irailaren 30ean itxiko da.

Haraneko musika lokaletan izena emateko aukera

Musika taldeentzat Haranen kokaturiko entsegu lokalen erabilerarako betebeharren, eskubideen eta funtzionamenduaren ordenantza onartu zuen hasieraz udalbatzak azaroaren 28an. Behin betiko onartutzat jo zuen Udalak apirilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez jakinarazi zuenez.

Erabiltzaileekin lankidetzan bideraturiko ordenantzak berak zehazten duen moduan, "Haranen 2 musika entsegu gela intsonorizatu daude". Aurrerantzean, "Usurbilgo Udalak urtero, irailean, gela bakoitzean 8 talderi baimenduko dio erabilera. Guztira, Haraneko entsegu gelak erabiltzeko baimena 16 taldek izango dute". Egutegia eskuar-tean, iraila heldu da eta aurreikusitako moduan, erabilera hori baimentzeko lehen izen-emate deialdia plazaratu du Udalak irailaren 15etik 30era. Interesdunek eskaera orriak bete beharko dituzte, usurbil.eus/eu/eskaera-orriak helbidean daudenak.

Udaletik jakinarazi dutenez, "erabiltzaileak baimentzeko irizpide batzuk finkatu dira, puntuazio sistema batekin: taldeak modu kolektiboan aztertuta esleituko dira puntuak. Puntuazioan taldekideen errol-

da, adina, lokalarekiko duten antzintasuna eta generoa hartuko dira kontuan".

Goizeko 8:00etatik gauerdira baliatu ahalko dira entsegutarako lokalok. Tarte horretatik kanpo, "sartu edo ateratzeko malgutasuna izango dute, baina soilik zama lanak edo antzekoak egiteko. Horrez gain, Haraneko futbol zelaiko jarduna ahalik eta gutxien oztopatzeko konpromisoa hartu beharko dute". Horrez gain, "Udalak talde bakoitzari instalazioen bi giltza sorta utziko dizkio. Talde bakoitzak 60 euroko bermea jarri beharko du, gerora giltzak itzuliko dituztela bermatzeko".

Hiruhilero bilduko den jarraipen batzorde bat ere osatuko dute taldeetako ordezkariekin, "lokalen erabilera aztertuta eta, hala egokituz gero, neurri zuzentzaileak hartzeko". Arau-haustea ere zehaztuak ditu udal ordenantzak. "Arinak,

larriak zein oso larriak izan daitezke. Hautsitako arauen arabera ezarriko da bat edo beste. Isun ekonomikoak zein lokalak erabiltzeko debekua ezarri ahal izango dira".

Urtero

Eskaera kopuruak eskaintzarena gainditzen badu, itxaron zerrenda osatuko dute lokalik gabe geraturiko taldeekin. "Udalak, urtero, hamasei talderi emango die horiek erabiltzeko baimena, zortzi talde lokal bakoitzeko: horretarako, urtero, izen-ematea egingo da, irailaren bigarren hamabostaldian".

"ENTSEGU GELAK ERABILTZEKO BAIMENA HAMASEI TALDEK IZANGO DUTE"

Haur eskola, Agerialden

2025-26 ikasturteari Agerialden ekin zioten haur eskolako erabiltzaileek irailaren 5ean eta ez orain arteko Kalezarko erai-kinean. Izan ere, Udarregi ikastolaren erai-kinean eskainiko da zerbitzu hau ikasturte berri honetan, behin-behinean. Gogoan izan, Kalezarko erai-kina eraberritzera doa Udala.

Ondorioz, eraberrikuntza lan horiek amaitu artean, Agerialden eskainiko da haur eskola zerbitzua. Horretarako, leku aldaketa honetarako, "espazioa egokitzen aritu da udal-brigada udaberriaz gozotik".

Orain arte eginiko lan haue-tan, "Agerialdeko eremuan aparkalekuak egokitu dira: maisu etxearen aurrealdean hiru, eta Arratzain bideko al-dapan zortzi aparkaleku arrunt eta egokitutako beste bat. Az-ken hori izan ezik, gainerakoak 15 minutukoak izango dira, eskola egun eta orduetan, hau-rreren sartu-irtenak errazteko".

Hala, Udaletik zehaztu du-tenez, "2-3 urtekoen gela behe-ko solairuan kokatu da, eta 0-1 eta 1-2 urtekoena, goikoan. 2-3 urtekoen gela Agerialdeko erai-kinean geldituko da behin betiko, eta 0-1 eta 1-2koena, berriz, Kalezarrera itzuliko da, erai-kina birgaitzeko lanak egin ostean".

Zereginotara 100.000 euro inguru bideratu dituzte. "Ikas-tolak zati bat bere gain hartu du, 2-3 urtekoen gelagatik. Kalezarko proiektua egokitu-takoan jakingo da zenbat diru bideratu beharko den".



Agerialdeko haur eskola.



Miren Loinaz Garate Etumeta AEK Euskaltegiko ikaslea, NOAUako atarian.

"C2 ateratzerakoan ohartzen zara zenbat daukazun hobetzeko"

MIREN LOINAZ GARATE ETUMETA AEK EUSKALTEGIKO IKASLEA

Miren Loinaz Garate (1988, Azkoitia) iaz Etumeta euskaltegian euskarazko C2 ikastaroan izen eman zuen. Aditu maila dela aitortu du eta euskaraz hitz egiterakoan eta idazterakoan egiten dituen akatsez konturatzeko balio izan dio. Horregatik, euskaltegian izen ematea aholkatzen du.

Nola izan da C2 prestatzeko prozesua?

Miren Loinaz: Urte batzuk neramatzan C2 ateratzeko gogoekin, eta nire kasuan, titulua ateratzea baino euskara ikasteko gogoia nuen, eta garai batean ikasitakoa ahazten joan denez hori berreskuratu nahi nuen, eta iaz izen emateko aukera izan nuen.

Nolakoa da ikastaroa?

M.L.: Urrian hasi genuen ikastaroa, eta astero bi saio edukitzen genituen, bi ordu eta erdikoak. Horrez gain, tutorarekin ordu erdiko saioak izaten genituen astero C2 gainditzeko beharrezkoak di-

ren idazlanen inguruan hitz egiteko.

Azterketa erraza da?

M.L.: Ez da azterketa erraza, edo behintzat niretzat ez da erraza izan. C2ak esan nahi du euskara aditu baten maila duzula. C1 denok dugu buruan

zer den, baina C2a ateratzeko, salto bat dagoela esango nuke. Azterketa ez da erraza, alde batetik, luzea delako; eta bestetik, egunerokotasunean ez garelako euskara maila horretan ibiltzen. Orduan, nahiko maila altua eskatzen du.

"EZ DUT USTE EMAN BEHAR ZAION GARRANTZIRIK EMATEN DIOGUNIK AKATSEI. HORI DA KEZKAGARRIENA"

"NI POZIK BIZI NAIZ HERRI HONETAN KALEAN %90 EUSKARAZ ENTZUTEN DUDALAKO"

Egunerokotasunerako baliagarria da?

M.L.: C2a ateratzen duen jende askok lanera bideratuta ateratzen du, eta lanbidearen arabera oso erabilgarria da titulua edukitzea. Baina horretaz gain, ni irakaslea naiz, eta nire lanean konturatzen naiz euskaraz ez dugula hain ondo idazten, batik bat. Hitz egiterakoan bat-batekotasunari ez diogu hainbesteko garrantziarik ematen, baina C2 ateratzerakoan ohartzen zara zenbat daukazun hobetzeko.

Nola ikusten duzu euskara hezkuntzan gaur egun?

M.L.: Nik uste, irakasleak uste duguna baino maila baxuagoa dugula. Maila altua eta maila baxua zer den nahiko erlatiboa dela, baina alde batetik, aipatu dudan bezala, eguneroko bileretan, email trukaketetan eta horrelakotan akats asko ikusten dira. Beste aldetik, ez dut uste eman behar zaion garrantzirik ematen diogunik akats horiei. Niretzat hori da kezkarria.

Eta Usurbilen nola ikusten duzu euskara?

M.L.: Ni pozik bizi naiz herri honetan. Kalera ateratzen naizenean %90 euskaraz entzuten dudalako. Azkoititik hona etorri nintzenean ez nuen aldaketa handirik nabaritu kalean. Euskara entzuten da. Egia da niretzat, elebitasun baten barruan bizi garen heinean, gaztelaniaren influentzia gero eta handiagoa dela. Nahiz eta pentsatu euskaraz oso ondo gabiltzala, oso barneratuak ditugun akatsak egiten ditugu euskara erabiltzean. Zentzu horretan, euskara bizio batzuk hartzen ari da gaur egun, buelta bat eman beharko genizkienak, euskara zuzena ez dela hori. Kalean euskara entzutea pozgarria da, baina agian, geroz eta euskara traketsagoa entzuten dela esango nuke.

→ **Eta zein izan daitezke barneratuak ditugun esamolde horiek?**

M.L: Nik adibidez, aditzetan aldaketa handia ikusten dut. Aditzen erabilera desegokia entzuten dela esango nuke. Ez dakit den erdararen eraginez, edo beharrezko garrantziarik ematen ez diogulako, akats horietan erortzen gara eta naturalizatuak ditugu. Gero ere, gaztelaniatik ditugun itzulpen zuzen batzuk, berez ez direla euskara eta euskaraz esaten ditugula uste dugu, baina euskararen jatorririk ez duten esamoldeak dira. Adibidez, "gero gaude", edo "gaur arratsaldean zer egiten dugu" esamoldeak oso barneratuta ditugu, eta zentzu horretan esaten dut euskara trakesten ari dela.

Usurbildarrei gomendatuko zenieke AEK-n izen ematea haien euskara maila aztertzeko?

M.L: Nik uste oso baliagarria dela denontzat, konturatzeko zein akats egiten ditugun. Askotan euskaldun zahartzat hartzen dugunok gure burua euskara edukitzearekin nahiko dela uste dugu, baina hizkuntza guztiek behar dute hizkuntza hori hobetzeko helburua edo hizkuntza hori zuzen erabiltzekoa, arlo profesionalean edo akademikoan euskara baliagarria dela era-



Euskaltegian matrikulatzeko garai egokiena da hauxe. Argazkian, Etumeta AEK euskaltegiko gela bat. ARTXIBOKO IRUDIA

kusten jarraitzeko. Hizkuntzek maila guztiak behar dituzte, hasiberrietatik aditueta raino. Euskarari bultzada bat eman nahi dion jendearentzat baliagarria da euskaltegira joatea.

"EUSKARARI BULTZADA BAT EMAN NAHI DION JENDEARENTZAT BALIAGARRIA DA EUSKALTEGIA"

Eta hitanoaren erabilera nola ikusten duzu?

M.L: Penaz ikusten dut. Mutilek barneratu dute hitanoa, baina nesken artean ez dut hitanoa entzuten. Neskek tokan egiten dute noka egin

"MUTILEK BARNERATU DUTE HITANOA, BAINA NESKEN ARTEAN EZ DUT HITANOA ENTZUTEN"

beharrean. Baina nik uste erreferenterik ez izateagatik dela. Hitanoa normaltasunez erabiltzen zuten emakumeak gutxiago dira, eta gaur egun guraso garenok noka ez dugu erabiltzen.

Deigarria da hitanoa orokorrean irakasten ez bada, zergatik mutilen artean mantentzen den eta neskek ez duten erabiltzen. Gure buruari galdetu beharko genioke ea zergatik mutilen artean toka hitz egiten jarraitzen duten eta zergatik nesken artean noka ez.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

HABEk dirulaguntza lerro desberdinak dauzka une honetan.

Maila gaunditu edo egiaztatu duten ikasleei dirulaguntzak: egiaztatutako mailaren arabera zenbatetako.

- A1 maila: 600 euro.
- A2 maila: 800 euro.
- B1 maila edo baliokidea: 900 euro.
- B2 maila edo baliokidea: 1.000 euro.

- C1 maila, 1995ean edo ondoren jaiotako ikasleentzat: 700 euro.
- C1 maila, 1994an edo aurretik jaiotako ikasleentzat: 150 euro.
- C2 maila: 100 euro.
- A1 maila ikasten duten ikasleei dirulaguntzak: matrikula murriztua ordainduko dute, 0,60 euro orduko.
- C1 maila helburu duten 16-18 urteko ikasleei diru-

laguntzak: matrikula murriztua ordainduko dute, 0,20 euro orduko.

Tokian tokiko administrazioaren laguntzak:

Araututa daude, eskualdeko udalerrietan, euskara ikasteko laguntza-lerroak eta, ñabardurak ñabardura, ezaugarri beretsukoak dira.

Interesatuak udaletxean topatuko dute informazio osoa.

Aukera zabala Beterri-Buruntzan

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia

Kale Nagusia, 43 behean. 607 609 379.

usurbil@aek.eus.





Uztailean, sei bikote berriek elkar ezagutzeko aukera izan zuten.

Sei bikotek biziberrituko dute HarEman egitasmoa

HarEman egitasmoaren bigarren aldia abiarazi dutela jakinarazi du Usurbilgo Udalak. Zabalduz kooperatibak dinamizatzen segiko duen egitasmorako sei bikote berriek agertu dute parte hartzeko borondatea.

HarEman egitasmoak biziberrituta ekin dio bere bigarren aldiari. Usurbilgo Udaletik jakinarazi dutenez, sei bikote berriek eman dute izena, Zabalduz kooperatibak dinamizatzen segiko duen egitasmorako. Oraingo honetan, ordea, bi berritasun iragarri dituzte sustatzaileek. "Izena emateko aukera urte osoan zabalik izatea, eta bakarka zein taldean parte hartzeko aukera eskaintzea. Horren aldeko hautua egin du zenbaitek, izatez", Udaletik zehaztu dutenez.

Gogoan izan, Usurbilen bizi direnak eta Usurbilera bizitzera etorritakoak hartuemanetan jartzen ditu estreinakoz 2023ko udazkenean martxan

jarritako egitasmo honek. Lehen aldian, zortzi bikote osatu ziren. Bigarren aldi honetan, uztaileko izena emana zuten sei bikote berriek beharrezko xehetasunak jaso eta elkar ezagutzeko aukera izan zuten Kalezarko Pelaioenean eginiko topaketan. Hemendik aurrera, "bikote bakoitzak bere prozesua egingo du, orain: asteen behin elkarrekin adostutako planak egingo dituzte, etorri berriek Usurbil eta usurbildarrak ezagutzeko aukera izan dezaten, eta Zabalduz-eko kideen laguntza profesionala izango dute, sei hilabetez. Uztaileko saioan sortutako giroa nabarmendu du Zabalduzek, eta azaldu, parte-hartzaileen

ekimenez, nork bere dinamika propioa jarraitzeaz gain, tarte talde osoa elkartzea ere adostu zutela".

2026rako hirugarren txanda

HarEman proiektuaren bigarren aldi hau martxan bada ere, interesdunek urte osoan eman dezakete izena, galdetegi bat beteta. "Bigarren aldiko bikoteak osatuta, hemendik aurrera izena ematen dutenekin hurrengo aldirako zerrenda osatuko da", argitu dute Udaletik. Informazio gehiago bideotatik jaso dezakete: hareman@zabalduz.eus helbidean, edota 722 446 156 telefono zenbakian.

Hurrengo aldi hori, hirugarrena, 2026. urte hasierarako

finkatua dute ekimen horren sustatzaileek. HarEman, Usurbil harrera herri izateko bidean emandako beste urrats bat da. "Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen lan-ildoari jarraituz, azken urteetan hainbat lan egin dira harrera herri izateko ahaleaginean", Udaletik gogorarazi dutenez.

Bi eremutan eragiten ari dira: udalean eta komunitatean. "Udalari dagokionez, egindako lanaren emaitza dira, besteak beste, Aniztasun Kontseiluaren sorrera, Emakumeon Etxean eskaintzen den harrera zerbitzua, erroldatzearen garrantzia azaltzeko eskuorria edo baliabideen gida berritu eta oinarritzko hiztegi bat sortu izana. Etorri berriek haiei zuzendutako ekimen eta bestelako zerbitzuen berri izan dezaten errazteko, panel informatibo handi bat jarri zen, martxoan, udaletxeko atarian, eta ondoan jarritako daude, eskura, herriko baliabideen gida berritua, erroldatzearen inguruko azalpenak, oinarritzko hiztegia eta HarEman programaren eskuorria. Udalak egin dezakeenaz gain, ordea, komunitateak egin dezakeen ekarpena handia izan daitekeela iritzita jarri zen martxan HarEman programa: modu boluntarioan aritzen dira parte-hartzaile guztiak".

"USURBILEN BIZI DIRENAK ETA USURBILERA BIZITZERA ETORRITAKOAK HARTUEMANETAN JARTZEN DITU EKIMEN HONEK"

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
Info@inakiliturgintza.com • www.inakiliturgintza.com
600 024 825

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera
8:00-00:00 Ostiraletik - Larunbatera
Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL Tel 943 73 20 27

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua • asteburuko menua
oilasko erreak, ogitarteak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrea 6, Usurbil.



Usurbilgo Udaleko eta Matiako ordezkariak, Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzetan.

Bizi osorako etxebizitzak, eskuragarriago

Egurtzegiko bizi osorako etxebizitzetara sartzeko "baremazio eta esleipen prozedura" araudia hasieraz onartu zituen udalbatzak uztailaren 24ko osoko bilkuran. GAO-n argitaratu ostean, hilabetez jendaurrean izan da. Tarte horretan alegaziorik izan ez denez, behin betiko onartu da.

Udalbatzak hartutako erabaki horren aurretik, bisita gidatu bidez aurkeztu zizkieten Matiak eta Udalak aipatu etxebizitzok bisita gidatu bidez. Bizi eta bizikidetzaren proiektuei erantzutea, zaintza beharrek bizi proiektuak ez haustea. Haiei, bai zaintza behar dutenen zein zaintzaileen bizi egitasmoari segida ematea bermatzea dute xede sei etxebizitzek.

Usurbil herri zaintzaileagoa izateko bidean, lankidetzan segitzen duten bi erakundeon arteko hitzarmenak ahalbidetu du, sei etxebizitza hauetatik lau usurbildarrentzat izatea. Matiako ordezkari Maider Azurmendiren esanetan, "Usurbilgo herriak herri zain-

tzailea izateko ibilbide horretan, kateko katebetegi bat gehiago litzateke, aukera bat gehiago". Aukera berri bat; "ez dago esperientziarik eredu honetan". Izan ere, oroitarazi zuten moduan, zabalik eta beteak daude Ugartondoko Txirikorda belaunaldiarteko 16 etxebizitza komunitarioak. Handik hurbil da Egurtzegi,

"USURBIL HERRI ZAINTZAILEA IZATEKO BIDEAN, KATEBEGI BAT GEHIAGO LITZATEKE"

Foru Aldundiarekin hitzartutako zaintzadun etxebizitzetako 127 plazekin. Bertan kokatzen da baita Usurbilgo Eguneko Zentroa ere. Etorkizunean, aldaketarik ez bada 2026. urte hasieran eskaintza honen osagarri izango dira, bizi osorako sei etxebizitza hauek. Haietatik lau Usurbilgo Udalak alokatuko ditu

"LAU ETXEBIZITZA USURBILGO UDALAK ALOKATUKO DITU USURBILDARREI ESKAINTZEKO"

usurbildarrei eskaintzeko. Bizilekuok zaintza eraldatzeko osaturiko "herri estrategia- ren" baitan kokatu zituen alkateak.

"Erantzun berri bat"

Matiako ordezkariaren esanetan, "etxebizitza hauek erantzun berri bat ematera datoz" irisgarriak ez diren etxebizitzetan bizi ez eta baldintza egokidun bizileku behar- rean direnei, guneok komu- nitatearekin harremantzea zailtzen dietenei edota zain- tzaileek haien jarduna egoki egitea bermatu ezin dutenei.

Seitik lau etxebizitza izango dira alokairu bidez Udalak kudeatu eta usurbildarrei es- kainiko dizkienak, aurreikus- penen arabera, 2026. urte hasieran. Bertara sartzeko baremazio eta esleipen pro- zedura onartu zuen hasieraz udalbatzak uztailaren 24ko osoko bilkuran. Behin betikoa onetsi ostean irekiko dute in- teresdunentzat izen-emateko epealdia; udal aurreikuspenen arabera, urria aldera izan dai- teke. Bizikidetzaren unitate ba- koitzak alokairuagatik ordain- du beharko duena alokairu indizeak zehaztuko du, laster helduko den tentsio handiko eremu izendapenari lotua egongo dena.

Zaintzadun etxebizitzak izango dira, Usurbilen zaintza ekosistema eraldatzeko egiten ari den bidearen baitan eskai- niko diren baliabideen eskain- tzan txertatuko dira. "Usur- bilgo etxez etxe zerbiztua, Eguneko Zentroa, laguntza pertsonalak, komunitate mai- lan sortzen diren ekimenak.... izango dira hemen, bertako bizilagunentzat" haien sare- tzerako. Bizi osorako etxebi- zitzotako bizilagunek "gizarte zerbizuetako gizarte langile erreferenteak izango dituzte. Haiek izango dira bertako bizi proiektuok aurrera eramateko artikulazio lanetan laguntzai- le eta berdin; herriko anbulat- egia izango da haientzat osa- sun erreferente".



Usurbil Kirol Elkartea 7 talde izango ditu ikasturte honetan.

Ilusioa nagusi Usurbil KE-ren denboraldi berrian

Usurbil Kirol Elkartea 2025-26 denboraldirako osatu dituen taldeak aurkeztu zituen aurreko larunbatean Sutegin.

Zazpi talde osatu dira denera. Haien ordezkaritza zabala izan zen aurreko astean, Sutegiko auditorioan. Talde hauetako guztietako entrenatzaileek zein kapitainek eman zituzten xehetasunak Usurbil K.E.-k antolatu eta klubeko kideekin batera, erakundeetako ordezkariak erakarri zituen hitzorduaren baitan.

Eskubaloia partidak Irailak 13, larunbata, Oiardon

- 10:00 Jubenil neskek:
-Usurbil K.E.
-Pulpo Eskubaloia.
- 11:30 Kadete neskek:
-BILAGUN Usurbil K.E.
-Orio Eskubaloia.
- 13:00 Jubenil mutilak:
-Usurbil K.E.
-Pulpo Eskubaloia.

Oiardo kiroldegitik kanpo:

- 20:00 Senior mutilak, 1. nazionala, Egiako kiroldegian:
-Egia Eskubaloia.
-Saizar Usurbil K.E.

Selekzioarako deia

Usurbil K.E.-tik jakinarazi dutenez, kadete mutilen euskal selekzioan parte hartzeko

deitu dute eskubaloia taldeen bilgunek kideetako bat; Manex Manterola Latienda.

62. Enrike Abril errebote txapelketa

Irailak 14, igandea

- 10:30 Zubietan:
Zubieta 2-Txost
- 10:30 Villabonan:
Behar Zana-Zaharrer Segi

Lehen emaitzak:

- Luzean 13-4 Kanboarrak
- Zubieta 1 13-0 Senpere
- Txost 11-13 Zaharrer Segi

Irailaren 27an eta 28an, Errebotearen Eguna Zubietan

Errebotearen Eguna egingo da Zubietan, irailaren 27an eta 28an. Egitaraua aurkezteko ekitaldi bat antolatu dute ostegun honetarako. Irailaren 11n osteguna, 17:30etik aurrera, Zubietako errebote plazan (euria bada, Kaxkapen). Partaideak: 650 Usurbil Bizi, Zubieta Pilota Elkartea, Donostiako eta Usurbilgo udalak eta Zubietako Herri Batzarra.

Pagazpe pilota elkarteko gazteak, Gipuzkoako txapelketan

Denboraldi berria hastera doa Pagazpe pilota elkartea "eta honekin pilotazaleoi deia frontoira pilota partiduez gozatzera gerturatzeko. Ostiral honetan hasiko dira partidak Usurbilgo frontoian", pilota elkartetik aditzera eman dutenez. Aste honetatik aurrera Gipuzkoako txapelketan burubelarri arituko dira.



Denboraldia hastear da.

Esku-Pilota

- Ekain Alejo-Markel Alejo (Kadeteak 2. Maila).
- Aiert Aburuza-Aimar Alejo (Jubenilak 2. Maila).
- Aritz Etxabe*(Bergara)-Enaitz Errasti (Jubenilak 1. Maila).
- Xabi Santxok utzita jokatu du Oretetako EPLE elkartean, Binakako Txapelketan (Nagusien 1. Mailan).

Asteburu honetako partidak

Irailak 12, ostirala, 18:00 Usurbilgo frontoian.

Kadeteak eskuz binaka, Gipuzkoako 2. mailan:
- Pagazpe (Alejo-Alejo)
- Abantzu

Irailak 12, ostirala, 18:30 3. partida Bergarako pilotalekuan.

Jubenilak 1. mailan:
- Pagazpe (Etxabe-Errasti)
- Tolosa 1

Gomazko Pala

- Xabi Errasti-Iñaki Leunda-Beñat Pagoaga (Nagusien 2. Mailan).



NOAUA

Agur beroa, Delirium Tremens taldekoei

Delirium Tremens agur biran murgilduta dabil. Irailaren 5ean, Usurbiletaz agurtzeko kontzertua eskaini zuten Mikel Laboa plazan. Aurretik, Palestinaren aldeko kazerolada eta Txiskeroak (argazkian) taldeak izan ziren. Delirium Tremens taldekoak azken aldiz zuzenean ikusi eta entzuteko azken aukera izan zuten usurbildarrek.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo erdigunean 3 logelako etxebizitza eta garaje bat bat dauz kagu alokatzeko. Etxe osoko gelek argi naturala dute. 658706447.

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

Usurbilen (erdigune edo auzoetan) alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil. Pertsona bakarra naiz eta ez daukat animaliarik. Diru sarrera finkoak ditut. 630089127

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldaria behar da. Astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

LANPOSTUAK

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LAN ESKAERAK

Lan bila nabil. Lan eskaintzaren bat izan edo eskaintzaren baten berri baduzu, deitu: 668 57 85 52 / anquitara@gmail.com

Garbiketa lanak edo ume zein helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila nabil. Erreferentzia onak dauzkat. Goizetan 16:00ak arte lan egiteko aukera. 604302785

Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintza lan egiteko lan bila nabil. Zaintzaile titulua daukat eta interno moduan edo orduka lan egiteko disonibilitatea. 631654743

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747446091.

Ostalaritzan edota garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. 613586716

BESTELAKOAK

Batxilergo 2. maila egingo duen ikasle bati matematika eta fisikako klase partikularrak emateko norbaiten bila gabilta. 657714355

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Haurren aisialdirako hezitzailea naiz, eta esperientzia dut. Irailean prest egongo nitzateke lan egiteko ume zaintzan edota eskolako lan errefortzuetan. 688896135

Klase partikularrak emateko pertsona baten bila nabil. DBH3ko ikasle bati, astean 3 egunez. Ikasurte osoko konpromisoa: 647742588

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreata	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

HILDAKOAK



Agustin Dominguez Marquez

Irailaren 1ean hil zen, 67 urterekin.

HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- Asteleheneko 17:00ak arte jasotako emango ditugu argitara.
- Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 13

USURBIL 2. Iñurri Eguna

Izan Iñurri elkartearen eskutik.
Egun osoko jardura.

IGANDEA 14

ZUBIETA 62. Enrique Abril Errebote Txapelketa

Zubieta 2-Txost taldeen arteko
norgehiagoka.
10:30 Zubietako errebote
plazan.

OSTIRALA 19

SANTUENEA Jaiak

Santueneko jaien egitaraua.
Egitaraua, 13. orrialdean.

LARUNBATA 20

SANTUENEA Jaiak

Umeen Eguna.
Egitaraua, 13. orrialdean.

IGANDEA 21

SANTUENEA Jaiak

Egitaraua, 13. orrialdean.



Mirua taldeak joko du arratsaldeko kontzertuan.

Iñurrien egun seinalatua

II. Iñurri Eguna ospatuko da
larunbat honetan eta goizean
goizetik hasiko dira ekitaldiak.
Horietako batzuetan izena
eman behar da aldez aurretik.

II. Iñurri Eguna

- 09:30-11:30 Gorputzaren
esnatzea Usurbilgo frontoian,
Olatz Berasategiren eskutik.
Gehienez: 50 lagun.
- 11:30-13:30 Potxoenean:
-Zeramika tailerra. Aforoa:
gehienez 12 lagun.
-Bitxigintza tailerra. Aforoa:
gehienez 10 lagun.
-Makrame tailerra. Aforoa:
gehienez 15 lagun.
- 12:30 Mahaingurua Sutegi-
ko auditorioan. Sarrera: doa-
koa. Aforoa: 140 lagun.
- 14:30 Bazkaria frontoian:
Ensaladilla rusa + Paella +
Postrea eta kafea.

*Menu beganoa eskatzeko
aukera egongo da.

*Glutenik gabeko aukera egon-
go da.

*Ogia, sagardoa eta ura.

Prezioa: 30 euro.

Aforoa: 300 lagun.

• Bazkariarekin batera, bertso
saio musikatua:

-Gai-emailea: Amaia Agirre
eta iñurritxoak.

-Bertsolariak: Onintza Enbei-
ta, Ane Labaka eta Alaia Mar-
tin.

-Musikariak: Ixak Arruti eta
Gari Otamendi.

• 18:30 Kontzertuak: Olatz
Salvador, Olaia Inziarte,
Idoia Asurmendi eta Mirua
taldea.

Prezioa: 15 euro.

**Erreserbak eta informazio
gehiago, hemen:**

izaninurri.eus

Kale Nagusia, 10.

613 448 268

Sagardoaren kulturara hurbiltzeko bisita gidatua

650 Usurbil Bizi egi-
tasmoaren baitako
bisita gidatu gehia-
go izango ditugu
hurrengo astetotan;
lehena, irailaren
13an; sagardoaren
kulturara gertura-
tzeko aukera izango
da.

Irailak 13, larunbata
10:00-13:30 'Usur-
bilgo Sagardo Kultu-
ra: sagar jotzea'.

Irailak 20, larunbata
11:00-12:30 'Gerraren
memoria ibilbidea:
kolpisten okupazioa-
ren urtemuga' bisita
gidatua.

Irailak 21, igandea
11:00-13:15 'Museo
Irekia eta Zumeta
Estudiora bisita gi-
datua'.

Irailak 24, asteazkena
10:00-11:00 'Zero
Zabor bisita gidatua'
egiteko aukera.

**Informazio gehiago
eta erreserbak:**
650usurbilbizi.eus


Art Bi
Patrikuz
latexea
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO



www.noaua.eus



EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!

OSASUN GIDA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik



zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin
hitzarmena

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Irati Ibargoiien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA TEKARTERAPIA
ZORU PELBIKOA HAURDUNALDIA
PRESOTERAPIA PILATES TERAPEUTIKOA

irati.ibargoiien@gmail.com

[@irati_ibargoiien_fisioterapia](https://www.instagram.com/irati_ibargoiien_fisioterapia)

www.iratibargoiien.com

Puntapax kalea 6B, behe ezk. Usurbil 20170

943 53 92 66
623 46 26 58

AZKEN
AURRERAPENAK
GURE ESKUTAN !!
1. Erregenerazio
zelularra
azkartu.
2. Analgesia.
3. Antinflamazioa.
= ERREKUPERAZIO
DENBORA ERDIRA
JEITSIZ.



USURBIL
O P T I K A

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

MABIOK
FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia
inbasiboetan eta eskuzko
terapietan adituak
• Lesio erreadaptazioa
• Diatermia
• Ariketa terapeutikoa

C/ Alperroburu kalea, 1. BsB • T. 608 671 925 / 943 372 658
mablokfisioterapia.com

[mablok_fisioterapia](https://www.facebook.com/mablok_fisioterapia)

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95